

Elkarte eta pertsona
migratzaileentzako
informazio-orria

**EUSKADI
2026**



EZOHIKO ERREGULARIZAZIOA ATZERRITARRENTZAT



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



aholku-sarea

Atzeritartasunaren arloko Arreta Juridikorako Euskal Sarea
Red Vasca de Atención Jurídica en materia de Extranjería



EZOHIKO ERREGULARIZAZIOA, ZER DA?

Salbuespenezko eta aldi baterako aukera bat da, **Euskadin bizi diren atzerritarrek bizileku- eta lan-baimena** lortu ahal izan dezaten.

✓ Existitzen
den
errealitate

✓ Segurtasun
juridikoa
ematen du.

✓ Estatu osoan legez
lan egiteko aukera
ematen du.



NORK ESKA DEZAKE?

Erregularizazioa azpian adierazitako baldintza **GUZTIAK** betetzen dituzten pertsonak eska dezakete:

BALDINTZA OROKORRAK

- > **Euskadin** egotea.
- > Estatuan **2025eko abenduaren 31** baino lehen egon izana.
- > Espainian edo azken 5 urteetan bizi izandako herrialdeetan **zigor-aurrekaririk ez izatea**.
- > Espainian **sartzea debekatuta ez edukitzea**.
- > **Administrazio-tasa** ordaintzea.



ERREGULARIZATZEKO BI BIDE ESKURAGARRIAK

1

ASILOA ESKATZEN DUTEN PERTSONAK

Erregularizazioa eska dezakete, baldin eta:

- > **Nazioarteko babesa eskatu** bazuten 2025eko abenduaren 31 baino lehen.
- > **Baldintza orokorrak** betetzen badituzte.

Eskatzeko epea: 2026ko ekainaren 30era arte.

Izapideak egiten diren bitartean:

- Itzulera-prozedura oro **etengo** da.
- Baimenaren eskaera izapidetzea onartzen den unetik **bizitzeko eta lan egiteko behin-behineko baimena** emango da.

2

SALBUESPENEZKO INGURUABARRENGATIKO ERREGULARIZAZIOA (bide orokorra)

Baldintza orokorrez gain, eskaera egiten den unean gutxienez 5 hilabetez jarraian egon izana egiaztatu behar da eta **GUTXIENEZ** honako hauetako bat ere bete beharko da:

- > Espainian lan egin izana edo **lan-kontratua** aurkeztea.
- > **Familia-unitate**arekin bizitzea (eskolatutako seme-alabak, edo desgaitasuna izateagatik languntza behar duten edo objektiboki beren osasun-egoeragatik beren premiei erantzuteko gai ez diren adinez nagusiak, edo lehen mailako aurrekoak).
- > **Kalteberatasun-egoeran** egotea, gizarte-zerbitzuek edo Hirugarren Sektoreko erakundeek egiaztatuta. Ulertuko da egoera administratibo irregularrean dagoen pertsona oro egoera zaurgarrian dagoela.

Eskatzeko epea: 2026ko ekainaren 30era arte.



ZER GERTATZEN DA FAMILIAREKIN?

Seme-alabak adingabeak (edo desgaitasuna duten adin nagusikoak):

- > Pertsona helduarekin **batera** eska dezakete egoitza, bi bideetan.

Lehen mailako aurrekoak:

- > **Kasu jakin batzuetan** eskabidean sar daitezke.



PROZEDURA URRATSEZ URRATS

1

Dokumentazioa prestatzea

- > **Pasaportea, bidaia-titulua edo inskripzio-zedula.**
- > **Espanian bizitzea** egiaztatzen duten dokumentuak: errolda, txostenak, hitzorduak, ziurtagiriak, etab.
- > **Zigor-aurrekarien** ziurtagiria (edo eskatu izanaren ziurtagiria).
- > **Lana, familia, edo, hala badagokio, zaurgarritasuna** egiaztatzen duten dokumentuak.

 **Garrantzitsua:** ez da eskatuko dagoeneko Administrazioaren esku dagoen dokumentaziorik.

2

Eskabidea aurkeztea

- > **Inprimaki ofizialaren** bidez.
 - > **Erregistro ofizialetan** edo gaitutako bulegoetan.
- Eskaerak **lehentasunez** izapidetzen dira.

3

Behin-behineko baimena

Eskaera onartzen den unetik aurrera:

- > **Legez bizi** daiteke.
- > **Besteren kontura** lan egin daiteke, eta bide orokorraren kasuan, **norberaren kontura** ere bai.
- > Espainiako lurralde osoan eta edozein sektoretan.

4

Ebazpena

- > **Aldekoa bada:** urtebeteko bizileku- eta lan-baimena ematen da.
- > **Kontrakoa bada:** behin-behineko baimena amaitzen da.

5

Atzerritarraren identifikazio-txartela (AIT)

Baimena eman eta hurrengo hilabetean:

- > **AIT eskatu** behar da dagokion komisaldegian.



FUNTSEZKO GALDERAK

?

Lan egin dezaket ebazpenaren zain nagoen bitartean?

Bai, eskabidea izapidetzea onartzen den unetik aurrera.

?

Erregularizazio hori automatikoa da?

Ez, eskabidea aurkeztu behar da eta baldintzak bete behar.

?

Urtebeterako baino ez da?

Hasierako baimena **urtebetekoa** da eta, ondoren, Atzerritarren Erregelamenduaren bide arruntetara igaro ahal izango da. **Seme-alaba adingabeen edo desgaitasuna duten adin nagusikoen kasuan, 5 urtekoa izango da.**

MEZU NAGUSIA

Erregularizazio hau aukera paregabea da

- > Epe txikiak ditu.
- > Eskubideak eta betebeharrak aitortzen ditu.
- > Prestakuntza jasotzeko, bizitzeko eta duintasunez lan egiteko aukera ematen du.

Informazioa eta aholkularitza jaso, eta ez zaitez kanpoan geratu:

Aholku Sarea

Atzerriartasunaren arloko Arreta Juridikorako Euskal Sarea



Dokumentu hau informatiboa da. Kasu zehatzetarako, Aholku Sareak eskaintzen duen zerbitzura jotzea gomendatzen da.

EUSKADI
2026



EZOHIKO
ERREGULARIZAZIOA
ATZERRITARRENTZAT
